



## 2017KO MEMORIA

### ATZEGI BABES FUNDAZIOA



Okendo kalea 6, behe. 20004 DONOSTIA. Telefonoa: 943 42 39 42

[fundaciontutelar@atzegi.org](mailto:fundaciontutelar@atzegi.org)

# Atzegi Babes Fundazioa

## “Familia ez dagoenean”

Irabazi-asmorik gabeko elkarte juridikoa gara. Elkartearen helburua gizartean edo familian babesgabetasun-egoeran dauden eta adimen-desgaitasuna duten helduak babestea da.

Fundazioak ematen duen babesak, erabiltzeko dauden aukeren artean, azkena izan behar du, eta pertsona fisiko egokia aurkitu ezin izan den kasuetara mugatu behar da.



Babes hori izaera juridikoa aldatzeko prozesu baten ondoren ezartzen da; bertan, epaileak erabakitzen du zer laguntza behar duen, eta pertsona bakoitzaren premiekin proportzionalak izateko ahalegina egiten du, norberaren bizitzan edo ondare-bizitzan erabakiak hartzen laguntzeko eta beren interesak babesten lagundu ahal izateko.

Taldean lan egiten dugu, malgutasunez, sormenez, ausardiaz, zuhurtasunez eta, batik bat, konfiantzaz.

### **DATUAK**

2017an, 6 babes berri hartu ditugu formalki geure gain, eta beste babes-neurri batzuk; beraz, urte-amaieran, 122 pertsona babestu genituen. Horietatik, 8 kuratelak dira, 1 babes udalarekin partekatzen da, beste bat familiarteko batekin eta 4 beste neurri juridiko batzuekin babesten dira, besteak beste, defendatzaile judizialarekin, edo laguntzaile pertsonalekin, kautelazko neurri gisa.

Urtean zehar, 5 prozedura judizial berri hasi dira, eta horiek babes-erantzukizun berriak ekarriko dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko enkargua onartu eta espedienteak Fiskaltzara bidali ondoren, dagozkion prozedura judizialak sustatzeko alde legitimo den aldetik.

2017 ekitaldian, 2 baja egon dira: bat, hil egin zelako, eta, bestea, kautela-neurria amaitu zelako.



Babestutako pertsonak Gipuzkoako eskualdeetan bizi dira.

Beren bizitegi-egoera askotarikoa da, eta arreta jasotzen duten pertsonen profil eta egoerak zein desberdinak diren erakusten digu; etengabeko premiak eta orokortuak dituzten eta egoitza edo ospitaleetan bizi diren

pertsonak izan daitezke edo autonomia-maila handiagoa duten eta taldeko etxeetan, pisu babestuetan edo beren etxebizitzan bizi diren pertsonak.

### **20 pertsona babestu beren etxebizitzan bizi dira**



## BABESAREN AURRETIK

Urte-amaieran, 5 prozedura genituen, Gipuzkoako zenbait epaitegitan, eta horiek babes-erantzukizun berriak ekarriko dituzte.

Babesaren aurretiko zerbitzuaren barruan, nabarmendu behar da,



desgaitasuna duen pertsona hori seme edo alaba bakarra izanik, etorkizunari kezka bezala begiratzen dioten eta beren buruari honako galdera hau egiten dioten 7 familiari eman diegula Elkartearen berri:

- "Nor arduratuko da nire alabaz edo semeaz, ni ez nagoenean?"

Erantzuna oso erraza da:

- "Une hori heltzean, desgaitasunen bat duen pertsona babesgabetasun-egoeran badago, Fundazioak onartu egingo du epaitegiak zure semearentzat edo alabarentzat proposatzen duen kargua, eta kalitateko bizitza izateko ahalegina egingo du".

**Etorkizuna ez da une jakin batean prestatzen, baizik eta orainean, egunetik egunera; horretarako, onarpen egokia eta ingurune suspertua behar da, eta adimen-desgaitasuna duen pertsonaren autonomia sustatu behar da.**

## **BABESTU BERRIENTZAKO HARRERA TALDEA ERATZEA**

Aurtengo ekainean, Babestu Berrientzako Harrera Taldea eratu da. Taldea babestuko diren pertsona berriak hartzeko, haiei informazioa emateko eta gidatzeko erakunde babeslearen laguntza duten pertsonak eratzten dute; Fundazioarekin duten esperientzia azaltzen zaie.



Elkarrekin Bila programari esker, asteburu bat eman genuen Arantzazuko Santutegian, pertsona babestuekin, boluntarioekin, profesionalekin eta Patronatuko kideekin batera.

## **BOLUNTARIOTZA BABESLEA**

Gure babes-ereduan, Boluntariotza Babeslearen parte-hartzea dago inplizitu.

Boluntarioek aktiboki parte hartzen dute Fundazioaren eginkizunean; horretarako, harreman pertsonala ezartzen da babestu bakoitzarekin eta bere gaitasunak eta ongizate emozionalak sustatzen dira, konpromiso etikotik eta solidariotik.

**Pertsona boluntarioen taldea 34 pertsonak osatzen dute, honetatik 28 emakumeak dira eta 6 gizonak**



Bi pertsona horien arteko harremanak hobetu egiten du laguntza naturalen sarea, desgaitasuna duen pertsonak gizarte-harreman esanguratsuak izateko bide ematen du, beste pertsona batzuekin dituenaz bestelakoak (teknikoak, lagunak etab.) eta aukerak ematen ditu dagokion adinaren eta gustu pertsonalen arabera jarduerak egiteko.

Boluntarioen talde bat Bilbon izan zen, "Destino compartir" Boluntariotza Babesleko Estatuko Topaketan, esperientziak partekatzeko, beren lan boluntarioa betetzeko tresnak berenganatzeko eta adimen-degaitasuna duten pertsonengan eragina duten kontuei buruz hausnartzeko.

Boluntariotza Taldeko pertsona batek, Estatuko beste pertsona batzuekin batera,



## ERABATEKO KALITATEAREN EGIAZTAPENA KONPROMISOAREN ETAPAN



Autoevaluazio-prozesua egin eta hobekuntza-plana prestatu ondoren, Fundazioak Erabateko Kalitatearen egiaztapena jaso du, Konpromisoaren etapan. Babesleek, profesionalek, boluntarioek eta Patronatuko kideek eraturako talde bat arduratu da prozesua aurrera eramateaz; prozesuak bizi-kalitatea, konpromiso etikoa eta kudeaketaren kalitatea ditu ardatz.

Aurten, dagoeneko jarri ditugu agian datozen bi urteotarako ezarritako hobekuntza-planaren zenbait helburu.



Irakurketa erraza

### **Atzegi Babes Fundazioan hobekuntza-plana sortu dugu**

- Hobekuntza-planak egiten dugun lana hobetzeko balio du
- Fundazioak titulua jaso du lan horrengatik